

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

281n. zenbakia
zezeilla 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



- IPARRAGIRRE JOSE MARIA
- 1820-08-13'AN JAIOA
- URRETXU'KOA
- ABESLE OSPETSUA
- "GERNIKA'KO ARBOLA"REN EGILLE TA ABELE

BARRIALDIA (MODERNIDAD):

4.- MONTESQUIEU (1689-1755)

Benetan aundia da Montesquieu'k barrialdian izan dauan garrantzia, batez be politika-arloan eta agintaritzan iru zatitan banatzean: Legegintza, agintaritzan eta epailletza.

Baiña ain aundia izan arren, barri-zaleen jatorrizko pekatuak ikututen dauanean oso txiki geratzen da.

Franco'ren agintaritzan izan leiteke Montesquieu'ren aurka dagoan eredurik argiena, iru arlo orreik baten esku agertzen diralako. Eta orregaitik bear ba'da, Tierno Galban'ek eta Sole-Tura'k euren aurritza ipiñita argitaratu eben gazteleraz eta katalaneraz Montesquieu'ren idazkirik argiena. Egokia zan agintera bien bitarteko zubi izateko.

Montesquieu'ren pentsabidea ulertzeko laguntza izango jaku bere eriotz-orduan egin ebana: Josulagun bateri autortu eutsozan here pekatuak baiña une barantan agertu zan bere demokrazi-bideko eritxien alde.

Sasoi egokian agertuko dogu euren jatorrizko pekatuak beragan izan eban ikutua.

BARRIALDIKOEN JATORRIZKO PEKATUA

Azaldu daigun "Legeen gogoa" deritxon atalean diñoana. Morroitzan edo joputza edo esklabutza izadiaren aurka dagoala argi eta garbi esan ondoren, eta ori ez dala zuritzen ez guda-aroan, ez zorrak bardintzean eta ez erlejiñoagaitik esan eta gero, Montesquieu'k Afrika'ko baltzak esklabutzak artzea ta saltzea aztertzen dau eta or jausten da pekatua: "Europa'tarrak, Amerika'k zapuztu ondoren, ango lurrak landu bear izan ebezan eta azukerea merke atara. Orduan, baltz-baltzak ziranai, zudur laburra daukanai, ezinizan errukirik. Olakoai Jainko jakitunak ezin emon izan dautse arimarik baltz-baltzak diralako... Ezin dogu sinistu olako baltzak gizakiak diranik...".

Sinistu-eziñekoa da Montesquieu batek olakorik esan eikela! Berak be ba-eukan olako bildurren bat asikeran au esan ebanean: "Baltzak morroi biurtzeko gure eskubidea agertu bear ba-neu...".

AZALPENAK

1.- Ekonomia agertzen dau nagusi: Lenengo lur aundiegiak eskuratzeraz bultzatu gaitu. Gero lur orreik lantzeko gizonak morroi biurtzeraz. Eta azukerea

merke saltzea gogoratzen dauanean, gaurko lan-sari txikien aide eta ondasunak pillatzearen alde agertzen da. Baltzak (edo gaur eskulangilleak edo Irugarren Munduan bizi diranak) "ez dira gizonak" "ez dauke arima onik", ez dira besterik ekonomi-eragille batzuk baiño. Orrelan arlo orretan egiten dan dana, ondo egiña da.

Baiña or oker aundi bat agiri da: Pekatua urrez estaldu arren, pekatua da.

2.- Beste bost zio, endakerian sartuta dagoz: Motzak dirala, Jainkoak gu egin gaitula aundiagoak, antxiñatik datozen oiturak dirala, kristiñau garalako egin bear dogula ori, baltzak arimarik ez daukela, ez dirala gizakiak.

Berak lenago idatzia ukatzen dau emen Montesquieu'k: "Oiantzunak eraginda epaitzen dogu. Batzak txerrena zuria dala eta Jainkoa, baltza dala diño". Eta berak emen Jainkoa' morroitzan-aldeko agertzen dau.

3.- Zerua zurientzat eta europarentzat dala agertzen dau: Politika-arloan Montesquieu almena zatitzearen aide agertzen da, baiña ez ekonomian. Azkenengo onetan eskuz aldatzen dira ondasunak, baiña ez iñoz zatitu.

Gaur etorkiak ba-daukaguz, ez da gu obeak garalako, euren kontura aberastuak garalako baiño.

4.- Politikan ezkertar agertzen dana bera da ekonomian eskoitar: Montesquieu'ren aldia ba begozan bere aurka jokaten ebenak, baiña orreik eskoitartasuna salatzen dabe Montesquieu'rengan, aldi barriko gizona eskoiotar salatzen dabe ekonomian. Eta gaiñera au ipinten dabe bere agotan: "Indartsuak ori egiten ba'dabe, ondo egiña da".

Giro onetan, aurrera-zaie diralako Biblia'ren eta Koran'en aurka dagozanak, irakatsietan atzerakoiak diralako ain zuzen, ez dira konturatzen euren Biblia edo Enziklopedi onetan oker asko aundiagoak daukela. Alkar-izketea bear ba-dogu eta ez da orretarako biderik onena besteen eritxiak alboratzea. Gero norberak agertu leiz, emen jazoten dan lez, beste eritxi okerrago batzuk.

Olazar'tar Martin'ek

GABONAK

Gure aldizkaria illean bein baiño ez da argitaratzen eta orregaitik gizarteko barriak zar biurtzen jakuz argitaratzeko, baiña ez dot nai itzi igaroten gabonetako giroa irakurleen aurrean apur bat aztertu barik

KRISTO'REN AURRETIK

Euskalerrria erri zarra da eta Kristo' gandiko fedea gugana etorri baiño lenago euskaldun lez bizi giñan.

Noz egin zan aldakuntza au? Itaun ederra ta garrantzitsua benetan, eta arlo orretan nik dakidan dana jakin gura ba'dozu irakurri egizu Milian izena daroan nire liburua.

Kristo'ren aurretik emen garrantzi aundia eukan eguztiak eta au gurtzen ei zan jainko lez, eta ez euskalerrrian bakarrik, orduko mundu osoan be bai.. Orregaitik, abenduaren 25-inguruan jai aundiak egiten ziran eguzkiaren gurtzarako. Or dauka oiñarria Gipuzkoan geiago ospatzen dan suaren oikuneak. Orrexegaitik agertzen da barriro, Euskalerrrian be bai, Donine egunean suaren oikunea.

OLENTZERO

Berrogei bat urte dira, artean ezagutzen ez genduan Olentzero eguna gure artera etorri zala, antza dagoanez Aralar menditik

Olentzero'k siniste bakoen giroan dakar: Txokorra, zaatoa, txapela, seksua..., baiña kristiñau usaiña gaiñeratu jako. Ikazgiña ta basajauna izanik, bere lagunakaz ikusi eban eurak Kismi esaten eutsoen Kristo etorrela, eta barri ori laiñoetatik artu eben. Bere lagunak aitzetik bera amildu ziran, baiña bera barri ori ekartera etorri zan errietara. Ez ekarren emaitzik, baiña barri ona

artzen eben etxeetakoak emoten eutsoezan eta ortik dator emaitzak banatzea.

Olentzero'k ondo gertatzen dau giroa aspaldion gure errietan

Orregaz batera asko laguntzen dabe errietan ain ugari iziotuten diran argi gorriak.

GABON GABA

Gertakuntza orreik eraginda, pozez beterik urrertzen gara gabonetara eta Gabonak pozez beterik ospatzen doguz etxean naiz kalean naiz eleizan.

Orrelan, berez beti-bardiña dan urtearen joanean, zerbait barria sartzen dogu.

Urteko jairik pozgarriena izaten dala uste dot nik, Gabon gabekoa, maiatzeko pazkoetako baiño be pozgarriagoa.

Zergaitik dan ori? Bear ba' da itxaropenaren ikurra daroalako eta gaur itxaropenaren bear-izan aundia dauka munduak.

Itxaropena bear dogu bakoitxak. Ondo dakigu lurretatik atareak eta ezerezak garana, lur biurtzeko deituak garana, eta Jaungoikoa gure ondora eta gure bide-lagun etortea pozez artzeko gauzea da.

Itxaropena gure Euskalerrriarentzat. Badaukagu arlo onetan sendotasunaren bear-izana.

Itxaropena gure munduari begira: Geroago ta batua-godo dago baiña geroago ta nabarmenago agiri dira guda-arriskuak eta gosea

Ba-dauka ba itxaropenaren eta pozaren bear-izana gure munduak. Orregaitik ospatzen doguz ain egokiro gabonak. Gero gabon-zarrez batzen gara barriro urte barria itxaropenez asteko.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

"MILIAN" LIBURUA

(2002-11-25)

Jaun-andreok:

Zuen eskuetan dozuen liburu onek, oiñarri-oiñarrian, itaun oneri erantzun gura dautso: "Noz eta zelan eldu zan Bizkai'ra Jesus'en Barri Ona? Eta erantzuna emoteko, batez, be, Mungialdea artzen dau.

Eta idazleak beti buruan izaten dauan lez, emen be elburu bat dago: Erri zeitari agertu egin diran billaketak eta aurkitzeak. Sarritan billatzailleak gauzak aurkitzen dabez eta isil-isilik museo edo erakustetxean gordetzen dira, erri zeitari ezertxu be esan barik. Eta ori ez da onartzekoa: Geure aurretikoen barria jakin bear dogu, geure erria geiagi maitatzeko.

IDAZKERA-MOTA

Elburu ori lortzeko, bide asko artu leiz, esaterako garan-garan esan, edo itzaldi bat egin eta taldeak eroan ikustaldiak egiñez...

Nik artu dodan bidea, elebarria edo nobelea da: Lenengo, dagozan jakingarriak batzen dodaz, gero irudimena isurtzen dot gaiñera eta gero idatzi. Baiña zalantza bat dator beingoan: Zelan jakin zer dan irudimena eta zer dan edestia? Bai, zalantza ori be argitzen dot elebarrian. Argi esaten dot zer dan asmapena eta zer dan edestia. Besterik ez dot billatzen elebarria egiñaz irakurteko erreztasuna baiño.

JAKINGARRIAK

Ona emen gaurkoz Mungialdean aurkituak diran eta zortzigarren gizaldian edo lenago kokatzen diran jakingarriak edo oroitarriak:

– Jainko'n VIII gizaldiko krismoia. Eleizearen azpian agertu zan eta gaur altarearen oiñarri lez ezarri-ta dago.

– Fruniz'en Kristo baiño eun urte lenagokoa dan illa-ri bat: Eleizearen orman dago.

– Frumiz'en zortzigarren gizaldiko arri bi, illobi bat eta atzeko ate zarra ta ur-bedeinkatu-ontzia.

– Gamiz'en, Kafranga baserrian, atariko arrizko agean irarrita, ur-ontzi txiki bat eta kurutze bat: Ez dakigu noiz-koa dan baiña Labayru'k diñoanez, emen izan diran bateoetariko lenengoaren gomutakia izan daiteke.

– Meñaka-Barreneko baseleizan ainbat gauza dagoz VIII gizaldi ingurukoak.

– Emerando'ko Santa Elena'n VIII gizaldiko krismoia.

– Mungian: Korupean VIII gizaldiko illobiak, Bille-la'renak.

– Birle'n erromatarren bidea.

– San Anton'en eta Madalena'n VIII gizaldiko leio bana. Bizkai guztian olako 10 baiño ez dagoz.

– Berriaga mendian Kristo'ren aurreko erri zar baten oiñarriak dagoz eta sei krismo'i agertu dira VIII gizaldi-koak. Kristo baiño lenagoko illarri bat eta gaur galdua dan Bellila santearen arri asmatua.

Gaiñera gure izkuntza kontuan artuta, itaun bi egin bear doguz: Zergaitik esaten jake eleizako arduradunai "abadea" eta antxiñako eleizai "ermita". Or ez ete dau izkuntzak edestia agertzen, abadea edo monjea izan zala fedea ekarri euskuna eta "eremita" edo monjea bizi zan lekua zala baseleiza?

"Gaiñeratu daigun beste au: Eleiza zarren ondoan zergaitik agertzen da "Seboetxe" edo "Zeretxe"? Or zerorea bizi zan eta orrek ba-eukan zer-ikusia monjeakaz. Zerorak ziran orreik. Izen ori dauken etxeak dagoz Fika'n eta Derio'n. Beste leku batzutan Freila edo Ermitaño esaten jake olako lekuetan bizi ziranai.

Eta VIII gizaldian eleiza egiñak aurkitzen ba'doguz, eta asko, zenbat lenago etorri zan Barri Ona? Noiz entzun zan emen lenengoz "Aita Gurea"?

LEKAIDE BAT MISIOLARI

Jakingarri guzti orrei azalpen egokia emoteko, nire irudimenak argi diño Lekaide batek ekarri ebala Barri Ona gure lurraldera.

Orregaitik liburuaren gaiñean nik Milian izena emoten dautsadan irudi bat agiri da. Irudi au Kukula'ko Donemiliane'ra eskatu neban eta andik bialdu eusten, baiña bialdutako irudi ori ez jatan osoan atsegin izan. Misiolariak oinpean eukazan moroak eta eskuan ezpatea. Ori espaiñatarran irudimena da, ez nirea, orregaitik Milian oneri oinpeko moroak eta eskuetako ezpatea kendu egin deusadaz.

Eta nondik etorri zan lekaide ori?

Bixente Latiegi adizkideak amaitzear daukan Eleizearen edesti idatzian, amargarren alean, Zigoitia'ko Akosta'n edo okoizta izan zala lekaide-etxe aundia diño eta nik andixek ekarri dot Milian, beste iru lekiade lagun dauzala, Bizkai osoan Barri Ona zabaltzeko. Eta ez aitzu Latxaga'k "Euskalerriko Kapadozia" deritxon Trebiño'n eta Gobiaran edo Valdegobia'n lekaide asko izan zirala, euskaldunak.

Akosta'tik datoz ba nire irudimenak asmau dituan lau misiolariak Bizkai'ra: Milian, Braulio, Bizintxo eta Laurentzio. Bizkai guztira zabaltzen dira eta Milian Berriaga'ko erri zarrera urreratzen da.

MILIAN'EN KERIGMA

Kerigma deritxo misiolariak daroan mezu laburrari: Kristo it egin eben baiña Aitak biztu egin eban".

Baiña kerigma au azaltzeko nondik asi?

San Pedro Jerusalem'en onelan asi zan: "Zuek il zen-
duen Jesus Aitak Biztu egin dau eta geu gara lekuko".

San Paulo'k Areopago'a'n, ostera, beste era au artu eban: "Zuen jainkotegian altare bat aurkitu dot "Jainko ez-ezaguna"ri eskiñia eta auxe iragarten nator. Jainko ez-ezagun orrek bialdu eban Kristo eta au il egin eben, baiña Aitak biztu egin eban".

Ba, Milian'en kerigma beste era onetan asten da, lenengo itaun au eginda: Zuek nor daukazue jainkotzat?

Euren erantzuna izaten da: Gure jainkoa Ortzi da eta bere ordezkariak Mari, lamiñak, sorgiñak, iretxoak eta olakoak eta oneik Jainkoaren izenean osatu egiten gaitue eta gure ondasunen zati bat eskatu.

Ori aintzat artu eta Milian'ek diñotse: "Nik Ortzi baiño gorago dagon Jainkoa, zeru-lurren egillea iragarten dau-tzuet eta onek gure bide-lagun bialdu euskun Kismi edo Kristo aldarrikatzen dot. A il egin eben, baiña Aitak biztu egin eban".

BASELEIZAK SORTZEN

Sinisten ebenak taldea sortzen ebenean, Milian'ek eskari bat egiten eutsen: Kristiñau bat ilten danean, illobiratzeko leku bat aukeratu bear dogu eta zeuek be noizean bein alkartzeko lekua bear dozue. Egizue emen batzarleku eta illobi-leku izango da etxetxu bat eta bertan egingo dozue zuen otoitz-aldiak eta illetak. Orretako arduradun bat ipiñi bear dozue, zeuen artean aukeratu.

Orra or baseleizen jatorria eta orregaitik baseleizarik geienetan barruan eta lurpean illobiak dagoz. Eta ez aitzu XVI gizaldian parroki biurtu ziran eleiza oneik lenago txikiak eta baseleizak izan zirala.

Eta baseleizearen inguruan sortu zan taldeari, geroago, gaur arte. kofradia esan eutsoen, santu baten edo biren zaintzapean eta araudi arruntari jarraituz, auzo bizitza egokia eroan ebenak.

FEDEA MILLA URTEAN

Bear ba'da, eun bat urte igaro ziranean eta kofradiak naikoa ondo ezarrira egozanean, alkarteko fede-bizitza sendotu egin zan eta orretan jarraitu eben milla urtean (500-1500 urteetan), baiña zelan bizi eben gure aurretiko kristiñau areik euren fedea?

Ez aitzu etorten ziran lekaideak ez zirala mezadunak. Lekaideak eurak be urte birik bein baiño ez ei eben gure Jauna artzen. Orduan gure baseleizetan ez egoan mezar-rik eta igandea be ez zan ospatzen, antza. Zer egiten eben ba?

Ara, guk mezea izan ezik beste eleizkizun guztiak kendu doguz: ori izan da Batikano'ko II batzarraren ondoren galdu doguna. Gaur edozertarako bear dogu mezea, kintoen batzarra egiteko be bai. Eta areik gure aurretikoak ez eben eukiten mezarik, bai ostera beste eleizkizun batzuk. Ona emen zer egiten eben:

—Illetak ospatzen ebezan ondo, abade barik, baiña etxetik baseleizara argiakaz andabidean lagunduta, eleizan paternosterra eta salmoak abestuta, ur bedeinkatua erabillita, olatak edo ofrenda'k eginda... bertan eleizan lurperatuta. Gero jatordu berezia egiten eben...

—Trumoa entzuten zanean, serore edo eremitak araoa edo konjuroa egiten eban, ur bedeinkatua erabillita. Gogoratu esaldi zarra: Santa Barbara Santa Krutz, iñu-zentien ogie, Jauna gugaz miserikordie".

—Seroreak edo eremitan-ak ur bedeinkatuagaz odea bedeinkatzen eban urtero.

—Batez be gaisoa egoanean, abereak bedeinkatzen ebazan ur bedeinkatuak.

—Arrentzak edo letaiñak egiten ebezan. Ototz erreza ta ederra, batez be izurritean edo pestea egoanean eta au san'itan izaten zan.

—Bederatzi-urrenak be egiten ziran, santutegizat artzen ziran ennitetara, esaterako Jainko'ra.

—Kanpoak bedeinkatzea be egiten zan, uda-barrian, eta bedeinkapenaren ordezkariak janariak eskatzen ebazan, batez be arrautzak.

—Gaiso-aldi bat osatzeko santu bereziaren baseleizara joaten ziran: Belarriko miña kentzeko San Kristobal, sabelekoa kentzeko San Antolin...

—Baseleizetan kanpaiak ipiñi ziran ezker, eta aintxiñako gauzea da, goizean eta eguerdian eta gabean zero-reak edo eremitak kanpaia jotzen eban eta amaren ardurea zan etxean otoitza egitea. Ortik sartu zan ainbesteraño edozen tokitan otoitz aldi au egiteko oiturea.

Fedea bizi izateko era oneik ikusita, irakurleak au esan daike: Eta Barri Ona non dago?

Barri Ona eurentzat asieran emon eben baietza zan, Bateo-eguneko baietza. Orrek bizitza osoan irauten eban. Aurretik "Katekumeno-ekinaldia" euken.

OIKUNEAK EDO "RITOAK"

Gu oituta gagoz leku guztietan oikune bardiñak aurkitzen. Mezea, naizta izkuntza aldatu, leku guztietan dogu bardiña.

Baiña aztertu doguzan urteetan (500-1500) ez egoan oikune edo ritoen libururik. Orregaitik toki bakoitzean era batera egiten ziran eleizkizunak. Alegin aundia egin bear izan eben Eleiz-Batzar Nagusiak eta Goitzaiñak batasunera eltzeko.

Orregaitik, gure baseleizetan egiten ziran ritoak, lekai-deak ekarriak izango ziran eta latinez, baiña iñoz ez dogu aurkitu olako libururik, ez dakigu zero-reak edo eremita arek zer esaten edo egiten eban. Nik bai esango neuke garrantzi aundia eukela "Pater Noster"ak (bera zan otaitzaren ardatza), eta ur bedeinkatua erabilten ebela sarritan. Ur au, nire ustez, Monjeak ekarria edo bedeinkatua izango zan.

Dana dala, or daukagu mundu zabal bat gure billake-teari itxaroten. Jakingo al dogu egunen baten zerbait gei-ago gure aurretikoen fedeari begira.

Olazar'tar Martin'ek

DEMOKRAZIA' REN DENBORA' K

EGILLEAGANDIK ARTUA

Denbora oneik dira berezitasunaren aldeko giza-semeak edo JAINKO SORTZAILLEA'ren aldeko seme/alabak, atsegin aundiz gozatu bear daben denborak askatasunaren aide Ludi onetan, indar eta borondate guztiaz jokatuta.

Beragandik nai-ta nai-ez artzen doguzan ardurak leenengo beteteko, eta bear dogun bakea lortzeko bigarren, leen aldiz ezin-bestean artzen doguzan ardurak, bakean eta lotsagizun aundiko giroan, zeaztasunezko arrazoian bete daiguzan.

EPELABERRA

Zentzuz bete bear dogun ingurua da, nai-ta teenta-bereko edo bizitzeko doñu bakarra dala baten batzuk esan, euren lege-zapaltzailleak aurrera eroateko.

Orregaitik emen agertzen jat ikaragarritzko itaun bat: denbora gutxiko epe baten jaio ta il egin bear dauan gizon/emakume batek..., Ludi onek daukazan legeen aurka..., beti jokatu bear dabe? Iñozotasunaren denborak ete dira ba..., Ludi onetan JAINKOA'k ipinitako legeari, ainbeste iruzurrezko iseka eta txan-txa egiteko? Baleiteke!

ORRELAN ULERTU BEAR

Euskaldunak beti danik bete dau bere eginkizun guztia JAINKOARI begira, asieratik konturatu zalako Ludi onen izaera Beren Legeakaz erperatuta dagoala. Orregaitik Euskalduna antziñatik ordezkartzaren neurrian oso arduraduna da: "Beren Askatasunezko Oiñarriaren UNE dalako".

Orrela jokatu ez-gero, ulertzeak ez eban eukingo zailtasunik kontuan jausteko: "guk ez dakigun zeozertarako dala, gure nai-ta naiezko, garan, neurri andiko bizitz onetan agertzea, ain epe laburrean.

LEENENGO ERREGIA, IZKUNTZA

Leenengo eraiki genduna, izkuntza zan, gure artean ulertzea bear-bearrezkoa izan zalako. Eta erai-ki be, eurak Ludi onetan aituten ebenakaz sinismena

aundiagotuz, ulermeneko zer-ikusien zendotasunean.

Eta oiñarte zaindu dogulako daukagu, asieratik erai-ki ta dan izkuntz-zaar eta ederrena. Bere mamian, gizartearen arremetan eginkizun-on eta txarrentzako itzak izenduta, Ludi onen legeakaz berdintasunean ezarrita, benetan burutakizun edo gogai ederrak dirala.

ALKARTASUNA KENTZEN ERROMATARRAK

Beragaz ikasi gendun elkartasuna edo batzangotasunaren (globalizazioa) nausitasuna gizartearen babeserako, norbera gandik asita, sendi, auzo, leiñu eta Erria izan arte.

Ararte ondo joan zan gizart-ulertzearen arremanguztia, baktzaren eta danon ardurak lotsagizun aundiz eta bakez zaintzen ziralako. Baiña erromatarrak agertu ziran arro!, bai ikaragarritzko antolamenduaz borrokarako eta euren latiñagaz izkuntz guztiak menperatzeko, esaten ebenak: "eurak ziralala naikoa danon ardurak zainduz bizitzea aurrera eroateko". Eta alan alegindu ziran JESUKRISTO be erioztuta.

Oneik be joan ziran, berezitasunaren aurka ezin dalako borrokatu denbora luzean, oso makalak garalako beren aurrean eta JAINKO SORTZAILLEA'ren aginduaz, guretzat egin ebalako Ludi-berezi au; orregaitik da Mundu onen gaia bizitzaren sortzaillea eta betikoa dana, gu ordezkoak izanda denboraren epe labur baten.

KRISTINAUEN INDARRA EURAKANDU EBEN

Eta emen geratu gaitezun unetxo baten, ikusi daigun zelako itz-berezi ta ederra daukagun gure aurrean; bai sinismenean daukan gogai-aundi ta zentzuan edertasuna ikasi daigun. Berezitasunaren itzak, alkartu egiten daualako ezangura bardiñean JAINKO SORTZAILLEAREN LEGEA gure bearezko antolamentuan, zuzentasunezko ordearen eginkizunagaz; batera, bide bakarra dala erakutsiz.

Baiña gizon/emakume arroa, buru gogorrekoa da eta beti egongo da asmatzen, beren ameskeriko sasi-jainkotasuna zelan lortu.

Orretarako Kristautasunezko erlijioa beraganatu eben, kaizergoaz batera JAINKOA'ren ordezkioak dirala esanez, eta mendekotasunezko ameskeri orren bidetik, eten-bako borroka baten agertzen gara orain-aldiko denboretan.

LEGEA EURAKAZ DAGOALA USTE **DABE**

Kaizar-erregetza desegineko denborak dira, baiña izena euki ez arren, gudaloztearen indarrak euren eskuetan dagoz, eta espatakaz beartuta ESTADOS DE DERECHO estalkipean Europa guztiko berezitasuna oinkatu eben.

Fazizta, edo gogorkerizko menperatzailleak euki eben indarraren aurrean, berezidun eta eskertiarrak izendatzen ziranak aurka agertu jakiezan, ikaragarriko estanda sortuz, Munduko gizartean izugarriko biotz-gabeko triskantza eginda.

GUDA AUNDIEN BILDURRA

Munduko gizartea billurtu egin zan, eta zuzentasunezko erabagia artu zan, andik aurrera berezitasunezko gizartearen eskubideak babestu egin bear zira-la esanez.

Baiña denbora igarota, eta arrokeria or dago lez: or dabiz gizartea klonatu gurean, eurak agintzeko sasi-jainko lez. Askatasunaren bide guztiak moztu gurean, izatasun-gabeko edo berdintasun-gabeko inguratutako globalizazio bat, dano sartu gurean. Gudaren keiñadura ausartak egiten dabez lapurrak, txerit en izarrak paparrean dindilizka daroiezala, baiña gaurko egunean dan guzti ori alperrik, danok ikaragarriko bildurra dautsagulako 3'garren borroka nausi bateri leenengo, eta bigarren: gaur Mundu onetan esan eta egiten diran gauza guztiak, danak ulertzen doguzelako gertatzen diran unetxoan, bai Mundu onen eskututako tokian gertatuta be, albiste orrein barriak unetxoan jakiten diralako.

Orduan zer egin?

ARAZOAK BERBAZ KONPONTZEKO ERABAGIA

Ba..... berezkoa izan bear dana: "ARDURA-DUNA IZAN!!", guda-gabeko eta eten-bako leiaketa baten, arrazoia danok dakigulako non dagoan, eta gaurko egunean neurritz kanpoko gordetzaillea iza-

teak ez daukalako zentzurik, berezitasunaren arduran jokatu ezkerok. Mitxeliñetan batutako moltzo aundiak, ez bakarrik berez geiegian dagozelako, arazo aundiak diralako baizik, zentzunezko ordezkaritz-bizi baten ibiltasunean iraun dagian.

Begitu non agertzen dan Mundu onek daukan berezitasun guztiaren oreka.

Alperrik, leloak, salduak, saltzailleak eta menperatzailleak: "ori ameskeri utza" dala esaten dabe. Baiña lortzen ba-dogu, ez dogu lortzen gure Erri Berezien askatasuna bakarrik, bai Mundu onen arazo geienak desagertzea be, berezitasuna, berezko eta bearrezko ordezkartzaren bidetik "bizitzaren oreka" elburuaren billa dabillelako.

LENDAKARIA GUDA-BIDEK ALBORATZEN

Orregaitik gaur EUSKALERRIAN ez da bear izkillurik ASKATASUNA lortzeko, eta xautzailletasunezko mendekutzak alboratuz, danok aberkideak izan ABERRIA elburu daukagula, ordezeko ardurasakon bategaz lan eginda, gure LENDAKARIA dabil en antzera, eta ziur egon gure EUSKALERRIA laster EUROPA'ren IZAR aundienetariko bat izango dala zalantzarik gabe.

ATUTXA'tar **PAUL**

ZORNOTZAN 2.002'AN AZILLA'REN 20'AN



LEKAIME ALFEREZA

Gure irakurleak entzun izango dabe zerbait lekai-
me alferezari buruz, baiña ezin itzi aide batera notin
ospetsu au Ameriketara joandako euskaldun ospe-
tsuak gogoratzen doguzanean.

Berak bere bizitza edestu ebanean 1585n. urtean
jaioa dala diño, baiña bateo -agirian agertzen dan
urtea 1592 da eta au izango dala uste dot zurragoa.

Donostian jaioa dogu eta beronen gurasoak Erau-
so' tar Migel ,kapitaia, eta Galarraga ta Artze'ko
Maria ziran eta uri aretan alosa bizi ziran.

Donostia'n bertan sartu zan lekaime Txo-
min'darren alkartera, baiña bere eskintza edo botoak
egin baiño lentxuago, gizon jantzita urten lekaime-
etxetik eta uririk uri ibiltan asi zan.

Ameriketara joateko ametsak be ikutu eban eta
Sanlukar de Barrameda'n sartu zan ontzi batera
sukaldari-lagun lez Ameriketarako bere ametsa bete-
teko. Gudarako itxas-ontzi batera sartu zan, eta, zorio-
nez, itxas-ontzi aretako kapitaia Egifio'tar Esteban
eritxon bere osabea zan.

Eldu zan Indietako Kartajena'ra eta Trujillo'ko
salerosle aberatza zan Urkizu'tar Jon'en serbitzaille
ikusi eban bere burua.

Laster agertu zan bere izaera pellikaria eta euskal-
dunak ez ziranakaz izan ebazan lenengo burrukak
eta Reyes abizena eukan Peru' tar bat il be egin
eban. Trujillo'ra biurtu bear izan eban.

Bere aurka joian bat il eban an be eta errege-
ordearen laguntzaz, Lima' ra joan zan.

Errege-orde au be euskalduna zan, Agirre' ko
Orduño.

Urkizu laguntzaille ebala, Lasarte'tar Diego
salerosle aberatsaren zerbitzura sartu zan eta onek
bere dendan ipiñi eban lanean, baiña oker-ulertu
bat izan eben eta etxe aretatik urten egin bear izan
zan.

Txile'ra joian gudaroste batera sartu zan gudari
lez Arauko' tarren aurka gudakatzeko eta sendo
gudakatu eban.

Iru urte egin ebazan Txile'n . Erauso' tar Migel
bere anaia zan ango jaurlearen idazkariaren
etxean. Ez eban ezagutu bere anaiak.

Txile'n, Baldibia'ko gudaldian irabazi eban alfe-
rez- mailla.

Konzepzion urian Epaitegi' ko Entzule nagusia il
eban burrukaldi baten eta sei illebete euki eben elei-
za baten lotuta.

Andin urten zanean, oraingoan bere erru
barik, anai kapitaia il eban.

Arjentina' ra egtin eban iges Ande-mendien
gallurrik gallur eta Tukuman' era eldu zanean ema-
kume biri emon eutsen ezkontzarako berbea eta iges
egin bear izan eban

Iru illebete igaro ziranean, Potosi'n dago eta emen
sargentoaren laguntzaille izan zan eta ekiñaldi asko-
tan ainbat inditar ii ebezan.

La Plata'n berak egin bako ilketa bat leporatu
eutsoen eta oiñazeak artu bear izan ebazan, naizta
berak argi esan "bizkaitarra" zala eta bere legeak ez
ebela olakorik egiten izten.

Txarkas' era joan zan eta garia eta abereak saltzen
eta erosten asi zan Urkijo jaun baten kontura.

Barrero be burrukaldiak ugari eta eriotzarako
epaia emon eutsoen, baiña iges egin eban.

Kuzko'n zauri aundi bat egin eutsoen eta ilteko
arriskuan egoala, emakumea zala autortu eban. Osatu
zanean Guamanga'ra egin eban iges bizkaitarrak
lagunduta, onein artean bat Arteaga' tar Bautista
Gotzaiñaren idazkaria. Gotzaiñaren aurrean argi ta
garbi autortu eban emakumea zala. Eta Klara deuna-
ren lekaime-etxera sartu zan eta geroago Lima' ko
lekaime-etxe batera.

1624n. urtean España'ra biurtu zan.

Urrengo Erroma' ra joan zan eta Aita Santuak artu
eban eta onek baimena emon eutson gizon jantzita
jarraitzeko baiña iñori kalterik egin barik.

1645n. urtean Mexiko' ko Berakruz' era joan zan
Urtsua' tar Pedro' ren ontzietan. An Erauso'tar Anto-
nio izena artu eban eta garraio- lana egiten eban
kamioiakaz.

Mexiko'n il zan 1650n. urtean.

Olazar'tar Martin



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DI RU-LANGUNTZA JASO DAU

ASKATASUNA SORTZEKO BURRUKA

GOGORRA

Egitura zapaltzalleetatik askatasunera eltzea, ez da ^sauza erreza. Baiña Israeldarrak, al eben eran, gora goraka, jaikiko ziran. Naita etsaia agiñetaraiño armaz beterik egon. Gizonetik gizonera guda, guztiz, ezbarðiña agertzen zan. Alan bere Israel, gora goraka, jaikiko zan. Moisesek emondako argitasunak ta sinismenaren indarrak mendiak aide batetik bestera igaroko zituan.

Ejiptoarrak, ondo, gertuta egozen bai gizonez ta bai armaz. Gizonetik gizonera begiratu ezker, ez euken ezeren ta ez iñoren bildurrik. Adorerik ba-dauke datozela, emen, lurperatuko ditugu-ta. Gizon zantzo gogorra da ta itxura baten bildurgarria.

Urteera liburuak zazpitik amaikera arteko azalburuetan Ejiptoko izurrien barri emoten dausku... An luzaro iraun eben ta ezbear onetan nastatu ez gaitez, kontu aundia euki bear dogu. Itzez itz ez ditugu artu bear. Bibliak zer irakatsi nau dauskun jakitea da, emen, garrantzitsua.

Jaungoikoa otseindu ta anaitasunean bizi izatea da emengo irakatsia. Egitura zapaltzailleak ez direla giza-bidezko jokabideak. Jokabide orretaik urten ta anaitasun-giroan sartu bear dala bizitzan ori da sinistu ta ontzat artu bear dana. Bizi modua antolatzea ondoren etorriko da. Lenengo zeregiña da Ejiptotik urtetea, joputza, bertan bera, itzita.

Ejiptok jasan bear dituan izun-ien gora-beran, jarraian tarteko, esaten diran errepika batzuk dagoz. Bibliak irakatsi nai dauskuzan pentsamentu nagusienak lez dira.

Jaungoikoak nai dau, bere erriak Ejiptoren zapalketatik urten dagiala ta askatasunean, Jaungoikoa goratua izan dedilla anaien lurean.

Munduko gizonak euren _iza zapalkuntza asmoetan, okerkeriz on egiten dabiltzala uste izanik, Jaungoikoaren asmoen aurka jarten dira ta euren onurakaitik auzo erria aske izatea, iñundik Mora, ez dabe nai. Eskubideak zenbat eta geiago askatu biotza, ainbat eta biotz anker ta kaskar gogorrigo jarten dira.

Jaungoikoaren gogo bere aurka jarki ezindakoa da ta burruka gogor ta luze baten ondoren izan da be, askatasun ordua eltzen da.

Ejipton jazorikoak ikaragarriak ziran, nekez ikusten diran eta aretakoak. Ta eurak itsututa arro, ebiltzan munduaren aurrean.

Ejiptoko izurrien azalari lar ez dauzagu begiratu bear, zapalduta dagoen erriaren zoritxarrari begiratu... Gaiztakeriz zapalduta dagoan erri bat kontuan artu ta zor jakon askatasuna lortu dagian antolatzea, ori da gauzarik ederrena. Ori, nekez, ikusten da. Ta egizko eginkizuna ori da.

Ejiptoren gain jausi ziran lenengo izurriak zerbait ikarateko lez artu geinkez. Estura askatzailleak ez dira. Ta

Faraonen ministroak eskua bigundu egiten dabe, Ejiptoarrei txarragoa danik etorri ez eukioen. Erriak bigundu ta atsipetuteko, zapaltzailleak erabilten daben bidea da. Ta olan, len baiño erabagi gogorrigoak artu leikez euren asmo baltzetan.

Indartsuak euren asmoetan ez dabe. errez izten. Edozein erritar askatasun asmoz, odoletan desegiteko gertu dago. Euren arrokerizko poza or dago, besteak zapaldu ta norbera aundikiro bizi. Erri umilde baten gurari bidezkoa ikusteko ez dira gauza.

Israeldarrak, gogoz, jokatu eben askatasun-billa, baiña alperrik. ezer ezin eben lortu. Ta ori dala-ta, gogorkerira beartuta aurkitzen dira. Ziur ez dakigu zelan izan zan, baiña odola ixuri zan. Ejiptoar gazte talde aundia it zan. Urt, 12, 27.

Erriaren berarizko eskubideak zauritu, zapaldu ta erriaren onaren aurka ankerkeriak egiten ebiltzezanen aurka matxiñadea sortu zan.

Zapalduen egoera larritik sortu zan gogo eta Faraonen zapalketa gogorkeritik jaio zan, il edo biziki burrukari gagokioz. Israeldarren jokabidearen errua, Faraonen legezko zapalketa izan da. Ta egoera larri onek sortukeran, Jaungoikoa, ixilik, ez zan egon bere erriaren aurrean.

Azkenian be, burrukaldi au eldu zan bere azkenera, itxas gorriaz batera. Urt, 12.

Burruka azkenera eltzen dago ta Israeldar asko bildurrez beterik aurkitzen dira. Guda egin baiño naiago dabe Ejiptoarren uztarripean bizi. Ain zan larrria bizikera a, beti eriotzaren pentsuan. Garaitzaz ez euken usterik.

Baiña Moises buruzagi aintzindariak poztu ta indartu egin eban bere erria. Ez izkilu ta ez diru indarrak ez euken, baiña Jaungoikoa bebeartsuen alde ikusten dau ta ortik artzen dau poza ta adorea.


Zapalduen itxaropena Jaungoikoa da. Ori dala-ta, erriari emon dautson garaitzaren ondoren, Jaungoikoaren laguntza eskatuz, abestiz goratzen dabe.

Jopu bizikera larritik urten ta anaiarteko bizitza giroan sartzeari, Israeldarrak Pazko izena jarri eutsen. Pazkoa Jaunaren igarotea da, Faraonen menpetik askatu ta gero beti eurak askatzen jarraituko duan Jaungoikoa goratu nai dabe. Jaunaren erriaren bizitzako asiera pozgarria da Pazkoa. Ille au izango dozue urteko illerik aundiena.

Burrukaldi gogor ta luzeak izan dira ta eurotan Jaungoikoa izan da laguntzaille, ta laguntasun orren irudia da Pazko aparria. Jopukeri guztien ta anaitasunaren aurkako burruken askatasuna aditzen omoten dau Paskoak. Ta orrez gaiñera, beartsuen itxaropena da Paskoa.

SOLOZABAL'dar Paulin.

6.- ERROMA



Erromatarren lenengoetariko eder-lana: Kimera.

Grezia'k ikutu aundia izan eban gaurko gure bizitzan, zati on baten beintzat Erroma'ren bidez. Orregaitik garrantzi aundia dauka Erroma'k gutzat.

Idaz-lan baten Erroma'ko edertia ta ederti orren giroa agertzen aleginduko gara eta orretarako iru aldi bereiztuko doguz: 1.- Erroma erkala edo errepublika zana. 2.- Erroma'k inperioa izan eban aldi luzea eta 3.- Erroma'ko inperio edo aginterri kristiñaua.

6.1. ERROMA'KO ERKALA

Erroma asieran erkala izan zan, ondo eratua, baiña gero, bere burua galtzeko arriskuan ikusi ebanean, aginterria edo inperioa asmatu eban. Erakunde bi onein artean Julio Zesar edo Kaiser aurkituko dogu, bisagra lez.

Erkalaren aldia K.a.'ko 753n. urtean asten da eta K.a.'ko 44n. urtean amaitu Zesar il eben urtean ain zuzen.

Erkala izaten asi aurretik gaurko Italia'ren lurretan erri-mota asko bizi ziran: Etruskoak, onein egoaldean Latium egoan eta emen bizi ziran bolskoak, sabinoak eta abar eta egoalderago grekoak. Sortaldean Apenino mendien artean unbroak, oskoak, samnitak... eta egoaldean, zipulia, Kalabria, ta Sizilian iapigioak eta grekoak.

Olako erriarteetan sortzen da Erroma baserri txiki lez, zazpi mendi-muño onein artean: Kapitolio, Kirinal, Abentino, Palatino, Eskilino, Biminal eta Zelio.


Gizaldi bi igaro ebezan, Romulo ta Remo'k asiera emon ondoren, baserri lez, K.a.'ko VI gizalditik asita agintari etruskoak dabezela. Tarkinio biak esaterako. K.a.'ko 509n. urtean erriak Tarkinio erregea kendu eta erkala (errepublikea) ezarri eban eta K.a.'ko V gizaldi osoan ekin ebn erkal ori beste lurralde batzutara zabaltzen eta sendotzen: Bolskoak, etruskoak eta sabinoak menperatu ebezan. K.a. 400n urtean galoak guda egin eutsen eta esku artu, baiña gero atzeratu egin ziran. Guda asko izan eben aldi aretan, geienak galtzeko, bainña gudarostea eratzten ikasi eben. K.a.'ko III gizaldian menperatzen dabe italiaren erdi-ingurua eta grekoak alboratu. K.a. 264n.

urtean Kartagotarrak menperatzen dabez eta Kortzega ta Zerdeña eskuratu. Itxas-ontzidi ederra gertatu dabe eta Erroma'tarrai iru gudaldi irabazi eutsezan: Trebia, Tesino ta Trasimeno. Eta Cannas'en guztiz zapaldu eban Erroma. Baiña Ispania'n jarraitzen dabe kartagotarren aurkako gudak eta or irabazle geratu zan Erroma. K.a.'tik 133n. urtean zapaldu eben Numantzia, orduan euskalduna. Urrengorik urrengora eskuratzen dabez Pergamo, Bitinia, Siria, Ponto, Galia ta azkenez K.a.'ko 30n. urtean Ejipto.

Gizaldi orretan Erroma'k bere burua eratzten dau Amabi Olak deritxon legidiagaz asita: Lege orreik amar gizonak egiñak dira (decenviri) K.a.'ko 451n. urtean: Erri-batzar edo Asambleak eta ortik Senatua, eta senatuak izendatzen ebazan Pretorak, Konsulak, Kuestorak, Zensorak, Edilak, Prokonsulak, Trubunoak...


Erlajiñoa Grezia'tik artu eta egokitu egin eben: Zeus/Jupiter, Hera/Juno, Afrodita/Benus, Ares/Marte, Atenea/Minerba., baiña Greziarrak baiño leunago artzen dabe erlejiñoa. Oituretan garrantzi aundia dau Pater-Femilias edo etxeo jaunak.

Filosofi-arloan dana artu eben Grezia'tik, Estoa'tarrak nagusi zirala. Ez eben aurrerapenik izan zientzian naiz matematikan naiz astronomian. Osagille lez aurreratu ziran zerbait Galeno nagusi zala. Elertian be ez eben gauza aundirik egin eta egin ebena greziatarrai jarraituz: Komedi-arloan Plauto ta terentzio daukaguz eta prosan Salustio, Zesar eta Zizeron. Aldi onetan danean nagusi lez Julio Zesar agertzen da, Zizeron baiño be gorago.



Katakunbetan ederlan onak dago;, au esaterako: ogia ta arraiña ezaugarri lez.

Edertian Kapitolio'ko Otso-emea gogoratu bear dogu, naizta etruskoa izan. **(Imagen 9)**. K.a.'ko V gizaldia Kimera daukagu **(imagen 10)**: Leoiaren gorputza ta burua, auntz-burua lepo-gaiñean eta zugearen bustana. Argazkiak deritxenak egiten dira onak: giza-buruen irudiak dira.



Emna'kn kristinunwn artean basilikak dauke garrantzia.

6.2. AGINTERRIA (INPERIOA)

Iru gizalditara zabaltzen da Erroma'ko Kaiser-Erria edo inperioa: Augusto'ren agintaritzagaz asi (K.a.'tik 27n. urtea) eta Milan'go aginduagaz (K.o.'ko 313n urtean) amaitu arte.

Berez, legea zan nagusi personen gaiñetik, baiña ori Julio Kaiser'ek kendu eban: Len legeak egozan norki barik eta orain norkiak datoz legeak alboan geratzen dirala, senatu agintaritik Kaiser agintarira goaz. K.a.'ko 44n. urtean, epaillaren 15n. egunean il eben Kaiser. Gizona kendu eben baiña ez gizon orren jokabidea. Oktabio'gaz iru-gizon agintaritzatza sortzen da, baiña beste biak alboratu eta Oktabio geratzen da agintari bakar eta sendo. Onek agintaritzatza senatuaren esku izten dau baiña berari barriro emoten dautsoe, lenengo 10 urterako eta gero bizitza oso-rako. Orra or Kaiserra Erroman. Oktabio da orain tribuno bakarra, kontsul bakarra, zensore bakarra eta pretore nagusia, abade nagusia, ta abar... Gero datoz Tiberio, Kaligula, Klaudio eta abar... sarritan senatuaren aurka. Neron izango da izukeri nagusia dakarrena.


Erromatarrak Kaiser'en denporan inguruko mundua erromartu egin eben, ez grekoen jakintza egoan lekuan, au sakona zalako, baiña bai beste lurraldeetan: Espaiña, Afrika, Galia, Bretaña eta Europa barruan.

Aldi onetan zientziak lengo bidea jarraitu eben, batez be medikuntzak, filosofiak ez dauka estoikoak baiño beste bide barririk, Seneka agertzen da beste filosofo txiki batzukaz estoiko lez. Eta elerti-arloan Augusto'ren aldia da gurena: Birjilio, Orazio, Obidio, Tito Libio edestilariak, Seneka, Tazito edeslaria, Plinio Gaztea Jubenal eta Lukano olerkariak.

Etxegintzan Grezia'ko bideai jarraitzen dautse: Jauretxeak, basilikak, termak, antzokiak, anfiteatroak, arkuak ageak, zubiak, urbide edo akueduktoak, guda-lekuak, etxeak, illobiak... eta irudigille lez argazkiak lantzen dira oso onak.

6.3. KRISTIÑAUAK ERROMA'N

Aginterria oraindiño nagusi zan aldian eldu zan Erroma'ra Kristo'ren barria, Barri Ona, eta ainbestek euren bizia emon-ondoren, anginterrita ta agintariak eurak kris-



Kapitolio'ko otso esnea, etruskoen eder-lana.

tiñau biurtu ziran. Jazokizun orren asiera poztarria izan zan 313n. urtean Konstantino'k emon eban Milan'go agindu nagusia. Arrezkero, Juliano fede-ukatzaillearen aldi laburra izan ezik, agintariak eta Kristiñauak batera doaz. Azkenean Odoakro eruloen erregeak kendu eban Romulo Augustulo azkenengo enperadorea. Gero Teodoriko jabetu zan VI gizaldira arte.

Aldi onetan zientziak ez dau egiten aurrerapenik eta filosofia bera be teoloji biurtzen da eleizearen gurasoak pentsalari dirala. Edertia be katakunbetan agertzen da geien: Kristiñauen sinboloak, Biblia'ko jazokizunak eta Kristo'ren bizitzakoak, Andra Maria'ren irudiak eta ola-koak. Freskoa zabaltzen da asko teknika lez.

*Arkuak dira
erronna'n eder-
lan ospetsuak.
Au tito'rena,
Jerusalen
menaeratu
ondorek.*



Askatasuna lortu zanean, etxegintza asten da, basilikak batez be eta bateo-leku ospetsuak.

Katakunbetan, gaiñera margo-lan oso ederrak agiri dira, mosaikoa batez be.

OLAZAR'tar Martin.

(1) Lenengo Salmoa: Jaungoikoa Irutasuna da.

1

Jaungoiko Aita maite zaitugu
Zeru lurren Egillea.
Jainko Semea, maite zaitugu
guztion Salbatzaillea.
Jaun Espiritu Santua zera
alaitasun emaillea,
gure animan Senarra zera
poza sortzen langillea.

2

Irutasuna maite zaitugu
Jaungoiko bat zeralako.
Zure iduri ta antzekoak
gu egin gaituzulako.
Zu serbitzeko ta maitatzeko
zuk sortuak geralako.
Bedeinkatua Zure Izena
izan bedi betirako.

3

Jainko Semea Gizon egin zan
Ama Birjifiagandikan.
Jauna odolez izarditzen zan
gu salbatzeagatikan.
"Barkatu naita gizonak naiez"
pena onek lerturikan.
Eskerrak Jauna eta barkatu,
pekatuak azturikan.

4

Jaun Espiritu Santua zera
gure animaren jana.
Ikusi ezin zaitugu baiña
maitez sentitzen zerana.
Biurtu egiguzu danori
grazia len zuk emana.
Eskerrak eta ixuri Jauna
guri grazi berri bana.

5

Ikusten degu gure buruan
zerua ez da kabitzen.
Jakinduria ain umilduak
ipintzen gaitu arritzen.
Irutasuna arbol antzera
pixka bat da entenditzen.
Jaio gabea, ilko ez dana
beti gurekin bizitzen.

6

Arbola onen bizitza degu
Aita Jainkoa deitua.
Arbolan gerri eta adarrak
Seme Berekin batua.
Ale ederrez betea, au da
Jaun Espiritu Santua.
Jainko bat eta Iru persona
auxe det entenditua.

7

Ama Birjiña landare bat da
jaio ta azitakua.
Jaunak egiña graziz betea
pekaturik gabekua.
Jaungoikozkoa dan arbolaren
puarekin txertatua.
Dezakeanak ala egin da
Ama Birjin gelditua.

8

Gure landarek gelditzen dira
zuen bizitza kenduta.
Ale ohea emango duen
puarekin txertatuta,
baiñan bizitza ez du galdutzen
adarretik berrituta.
Ala Birjiña beti izan zan
Jaunak Ama biurituta.

(2) Bigarren Salmoa: Jesukristo'ren nekeak

1

Jaungoiko Itza Gizon egin zan
gu danok zeruratzeko,
gure animak pekatuz illak
Bere miñez piztutzeko.
Eskatzen digu Jaungoikoa ta
anai danak maitatzeko.
Damutu eta aitortzeakin
zai dagola barkatzeko.

2

Bere mifietan lagun izan zan
Andre Maria Birjiña,
Jesus'en Ama ta gure Ama
Aingeruen Erregiña.
Gure animak salba daitezen
egiten du alegina.
"Ama eskatu gaur nere aide
naiz Jaungoikoak egiña."

3

Guk omen degu anima bana
asko balio duana.
Guk ez dakigu asko zenbat dan
"Jauna zuk dakizu dana".
Dakiguna da Zure Odolez
gu erosiak gerana.
Eskerrak Jauna eta barkatu
jaso gaitzazu Zugana.

4

Jesus'ek beti goguan zeuzkan
pasa bear zitun minak,
animak danak salba gaitezen
egin zitun alegiñak.
"Nai ez duenak ez", Esan Aitak
neurri gabeko samiñak.
"Obligatuko naue galtzera
zeruratzeko egiñak."

OTOITZA

5

Jauna damu det biotz biotzez
Zu naigabetu izana.
Ez dizut berriz naigabetu nai
Zu nigatik il ziñana.
Maite zitut nik biotz biotzez
nere Jaungoiko laztana.
"Zeruan jarri nere izena
gero joateko zugana".

6

Jauna ezin ezagutu leike
Zuk diguzun errukia.
Gu bizitzeko zuk Odol dana
izan dezu ixuria.
Jauna Barkatu eta indartu
zurea dezun Erria.
Zurekin beti bizi nai degu
Zu zeralako Egia.

7

Ikusten dezu gaur bizi gera
zure miñakin aztuta.
Emen dabillen aize oztakin
gure biotzak oztuta.
Lagun eiguzu bizi gaitezen
gorroto danak kenduta,
anai izanaz alkar maiteaz
Jauna zurekin batuta.

8

Ama Birjiñak Jesus'en miñak
here min aundi zituan,
eta galduko ziran animak
ezagututzen zijuan.
Odolezko malkuak ixurik
berentzat eskatzen zuan.
Etsai mendetik atera eta
danak sarteko zeruan.

(3) Irugarren Salmoa: Espiritu Jaungoikoa.

1

Jaun Espiritu Santua atoz
gizonari laguntzera.
Zure mendean bizi gaitezen
osasuna ematera.
Zu jetxi ziñan Apostolu ta
andre santak indartzera,
Zurekin emen bizi nai degu
aingeruaren antzera.

2

Jauna, ixuri Zure Doiaiak
gu jakintsu biurtzeko,
Zure gogoa guk nola egin
bekaitzak ezagutzeko.
Jauna indartu gure biotza
beartsuai laguntzeko,
eta galxorik miñez daudenai
alaitasuna sortzeko.

3

Jauna, Zu zera Espiritua
Santutasunez sutua.
Guri bizitza ematen zaude
gure ariman sartua.
Zera Betiko Alaitasuna
bat jartzen dezu poztua.
"Nai ez badegu zurekin bizi,
sua da aukeratua".

4

Jaungoiko Itza izaten bada
gizonak blasfematua,
damutu eta aitortzeakin
izango da barkatua.
"Jaun Espiritu Santua bada
nai ezikan ukatua".
Au izango da barkatu gabe
betirako gelditua.

5

Jaun Espiritu gabe ezin da
esan Jesus'en Izena.
Gure biotza bizitzen dago
datorrelako gurena.
Jauna jarriko baliz gurekin
Errukirik ez duena.
Ezerezera biurtu eta
auxe genduke azkena.

6

Bere Errukiz ain maite gaitu
Berak sortu giñulako.
Jainko Gizonan Odolarekin
Erosiak geralako.
Eskerrak Jauna Neurririk gabe
Maitasuna zeralako.
"Zurekin bizi nai det nik beti
zuk egiña naizelako."

7

Aingeru danak lenengotikan
izarrak ziran zeruan,
ta diabruak irugarrengo
partea eraman zuan.
Ondorenean auxe entzun zan,
Jaun Semeak esan zuan:
"Orain eginda osasuna ta
dana Kriston erreinuan."

8

"Ai lurreko ta itxasokuak
errukitzen naiz zuekin,
zuek galtzera juanda etsaia
amon-u aundiarekin.
Baiña nik dana barkatuko diet
nere maitasunarekin.
Nai det gizonak bizi izatea
beti zeruan gurekin."

ALDALUR IRURETAGOIENA JUSTIÑE
LEKAIMEAK (ORDUÑA'n)

ARRORIOA

Gure ikasle-denporan ikasi gendun, gure mundu onen aldi baten zugatz aundi-aundiak beteten ebela lurra eta gero zugaz-tzar erreik lur-ikarak zirala-ta lurperatuta geratu zirala eta errein ondorena dira gaur lurbarruan aurkitzen diran arrorio edo petrolio boltza aundi ikaragarriak.

Lurpean egoan arrorio ori aurkitu dabe gaurko gizonak indar edo emerji-iturri biurtu dabe eta berebilen motorrak asmatu diranean, a zelako aberats-bidea sortu dan arrorioa dauken laterrientzat!

ESKATZEN DAUTZUDAN BURDIÑEA
BIZKAI'KOA DA, BERBAZ LABURRA,
EGITEZ LUZEA

TIRSO DE MOLINA

Irabazbide ori arabiarrek diran laterri askotan agertu da, baiña gizon batzuk aberastu eta erria oso txiro

OLAZAR'tar Martin'ek

KILI-KILI ALDIZKARIA

ZER DAN

Euskeraz idazten ikasteko aukera bat da KILI-KILI, batez be umeentzat.

Ainbat urte dira ikasbide au gure adiskide ta Ian-kide dan Jose Antonio Retolaza k irasi ebala. Eta gure adiskide onek lan aundia eta asmamen aundiagaz egin dau irakasbide onetan.

Al izan dogun neurrian lagundu dautsagu, ingurraztiak zabaltzen eta batzen, sariak banatzen eta ibillaldiak egiten.

Jakiña da KILI-KILI euskalzalea ta abertzalea dala eta ori da batzuntzat parkatu-eziñeko pekatu ezkutua.

GAURKO GIROA

Gaur abertzaletasuna eta gogorkeria zaku baten sartzen dabez gure aurkalarriak eta orregaitik, zaku orretara sartuta, debekatu dabela diño aldizkari au argitaratzea: Bizkai'ko Ikastolen Alkartek aldizkari

bizi izateko erabilli dabe. Dana dala, arrorioak aurrerapen aundia ekarri dau mundura.

Ez dagigun aitzu atsegin-baratz edo paraisuaren bazter baten sugea egoala eta antzera gure mundu aurreratu onen barruan be arriskua dagoala.

Ona emen zelan eldu garan prestige itxas-ontziaren arazo negar-garrira!

Itxas-gaiñean eta barruan zabaldu da arrorio lodia eta zelako ondamentia, batez be galiziarrentzat!

Gaiñera arrorio ori zabaltzen doala diño eta Euskalerrira be etorri leitekela. Gure Jaurlaritzak gauzak gertatzen diardu, badaespadan.

Ba-dagoz beste indarbide batzuk be, esaterako itxasoarena eta aizearena. Ikusten doguz mendi-gaiñeetan orretarako tramankuluak.

Bear-izan asko daukaguz gaur gizonak eta alkarrai lagunduta aurrera egin bear dogu, gaur galiziarrai lagunduta. Elduko al da alkartasunean munduko arazo larriak, batez be gosea, bideratzeko.

au kudeatzea itzi egin dau, DEIA'k diñoanez, azkenengo zenbakian euren elburutik kanpo dagoan gutun bat eta bertso bat agertu diralako (2002-12-11). Agiri orreetan Garzon'en eta Aznar'en eta ertzaiñen aurka idazten ei da eta ori ez ei da sartzen euren elburua dan, euskerea ta euskal kulturea indartzearen arloan.

Aldizkaria ez da geiago urtengo, baiña sariketake eta jarraituko dabe.

AUZOKOEN BIZARRA

Erdeldunen esaera zar batek diño "auzokoen bizarra kentzen diarduela ikusten dozunean, ipiñi egizu zeurea beratzen"

Ikusi dogu auzokoen bizarra zelan kentzen daben. Geurea beratu bear ete dogu?

Izan be abertzaletasuna ta gogorkeria alkartzeak errenta aundia damotsoe gure aurkalarriai.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

1.- GURASOAK/AITAK

Erriak egiten dauan euskera da euskera zuzena, baiña badago gramatika bat edo batzuk Bizkai'ko euskera zelan egin bear dan jakiteko arauak emoten dabezenak, orregaitik, gaur asten dogun arlo onetan geure eritxia agertuko dogun errian oker erabilten diran gauza batzuk zuzentzeko. Sarritan eztabaidagarriak izango dira eta pozik artuko doguz beste batzuren eritxiak emen argitaratzeko.

Ogei bat esaldi edo joskera edo berba oker erabiliak daukaguz et urrengo zenbakietan agertuko doguz banaka.

ESALDI OKERRA: Ikastetxean: Zuen aitai esan egie-zue eguastenean arratsaldeko 6'etan etorteko".

Oraindiño ez da asko zabaldu esaldi au edo antzekoak, baiña zabaldu baiño lenago zuzendu gura doguz.

Sendi-giroko itzetera euskera askoz da aberatsagoa gaztelera baiño gaiñera kuntze edo sexuak geiago nastatzen dau arazo au. Esaterako: "Vuestros hijos no estan motivados para estudiar". Txarto euskeratua litzake: "Zuen semeak..." Beti esan bear da "Zuen seme-alabak..." "Semeak" esan bear da mutillak baiño ez diranean.

Baiña artu dogun esaldi okerrean "aitak" eta "gurasoak" dira gaia.

Gaztelera "Padres" itzak illuntasuna dauka. Izan leiteke "aitak" edo "gurasoak".

Frantzeraz be "aitak" "peres" esaten da eta "gurasoak" "parents". Euskera onetan frantzereagaz batera doa, ez ostera gaztelereagaz batera.

Esaldi zuzena onelan litzake: "Zuen gurasoai esan egie-zue..."

Okerra geiago agertzen da oarra gaztelera egiten danean. "Decid a vuestros aitas..." Beste era onetara esan bear litzake: "Decid a vuestros gurasos" edo "vuestros aitas y amas..."

Ez jat geiegi atsegin "aitaxus" y "amatxus". Maitasuna agertzen dan txiki-atzizki edo "diminutiboa" ez da erabili euskeran. Iñoz entzuten da gaur "mesedetxu bat eskatzen nator". Dana dala, ez neuke ziur esango txarto dagoala, sartzen ba'da sartu daitela. Guk ez dogu "amatxu" iñoz esan, beti esan dogu "ama". Orain sarritan entzuten da "amatxu". Onartu beite!

2.- JO/IKUTU

ESALDI OKERRA: "Gitarra ikutu dot" "Kanpaia ikutu dau"

Esaldi oneik ez dira oraindiño asko zabaldu, baiña zori txarrez euskaldun barrien artean iñoz entzuten dira.

Erderaz bai esaten da "tocar la campana" edo "tocar la

guitarra". baiña ortik ezin artu lei baimena euskeraz esaldi bardiña erabilteko.

Euskeraz "Gitarra jo dot" eta "kanpaia jo dot" esan bear da. Iñoz esango ete dabe gaztelera: "Pegar la campana" edo "pegar la guitarra"? Ez dot uste. Ez gaitezcan izan euskalduna makuragoak.

3.- JON'EK/JONE'K

Oraingo onetan arau idazkera edo ortografikoa da: "Bizkai'ko" ala "Bizkaiko" idatzi bear da?

Gure idazkera-arau au da: "Izen bereziak (propioak) diranean beti banandu izena ta atzizkia goi-koma ori ipiñita. Eta arau onek bere oiñarria dau. Esaldi au idazten ba'dogu: "Jonek esan dau" ez dakigu "Jon" ala "Jone" izan dan izlaria. Edo "Sanperen egon naz" idazten ba'dogu ez dakigu "Sanper'en" ala "Sanpere'n" egon dan.

Koma ori goian ipintea oso argibide ona da, baiña gaurko idazleak goiko komatxu orreik kentzea eskatzen dabe, idazkera gaitxago biurtzendabelako eta ordenagailluakaz gaztasun berezia dagoalako.

Arau ori nik aldatu egingo neuke eta ordeaz au ezarri: Goiko komatxu kendu eta uts bat itzi.

Zelan idatzi, orduan "Olazar'tar" ala "Olazartar" ala "Olazar tar"?

Lengo oiturea aldatzea da, baiña nik beti idatzeko neuke "tar" ori berezizuta eta koma barik abizen guztiakaz.

Esaterako "Olazar tar". Orrelan argi dago abizena zein dan eta komatxuaren eragozpena bein betiko kentzen da. Martin'ek bai "Martine" izan ez daiten "Martin'ek" edo (emakumea danean) Martine'k idatzi.

4.- "-LAKO"/PORKE

Zergaitia agertzeko dan esaldia euskeraz apur bat gatxa da gaztelera erabilte oitu garanontzat. Onetan gaztelera errazagoa da eta orregaitik doa satzen euskerearen arerio aundia dan esaldi au. Batez be itxas-ertzeko errietan entzuten da:

ESALDI OKERRA: "Ezin dautzut ordaindu, porke ez daukat nondik"

Gaztelereak zergaitia "porque" edo "que" aurretik ipiñita agertzen dau. "No ha venido Juan. Es que esta enfermo" o "porque..."

Bizkaiko euskereak era bi daukaz zergaitia agertzeko: "Ezin dautsut ordaindu, ez daukadalako nondik" edo "ezin dautzut ordaindu, ez daukat nondik-eta".

"Porque" ori ez daigun sartu euskerara. Orrek esaldi osoa aldatzen dau eta erdelunen pentsaerea sartzeko geurea alboratzen dau. Euskereak egiten gaitu euskaldun.

OLAZAR'tar Martine'k

GAURKO DEMOKRAZIA

Baten baiño sarriagotan gogoratzen naz, ainbaten irakurrita oiñarrizko esaerakaz: "Menperatzailetasunaren ostean DEMOKRAZIA euri-lez agertzen da".

Zergaitik izango da?

Itaun oneri erantzuna emoteko, ikusi daigun, beti danak zer gertatu zan edestiari ikus-labur bat eginda.

Edestia, lau zatitan bananduko dogu: Kromaño, Erromatar eta Godo'en denhora; Eleiza eta Errege'en denbora; Borroka naguzien denhora: eta Gaurko DEMOKRAZIA'ren denborak.

KROMAÑON DENBORA:

Berezitasunaren denhora izan zan antza !. Aldebatetik: bizitzaren babeserako alkar-ekintzan, itzak eraikitzen ekandua eta sinismenaren kare balzagaz, ezerezetik izkuntzaren gaztelu ederra eraikitzeko ulermena babestu naian..... naiko Ian izango zalako. Eta bestetik: ikas-bide orretatik, sendia'ren ugaritasunagaz. ordezko ekintza ugaritasunaren neurrian goratzen joan zalako.

Bizi orretan, senidetasun mailla, gizeli, erro edo leñuen baitan agertu zan. Sorreratlk, ekintzaren ordezkaritzan orretako eratan gorpuztu zalako. Berezitasunaren Nortasunak sendotuta, aide batetik. Bestetik, Ludi onen berezitasunezko legeak, ez eutsoelako emoten beste aukerarik.

Orduko denborak, ez ziran izango guztiz loratsuak, giza-jaleak be izaten ziralako. Balekite, gure zimino denborak urhil egon ziralako izatea eta aberetasunezko ekintza aitzu barik euki. Baiña Ludi onen gizartea benetan konturatuko zala Nortasunezko Berezitasunean oiñarrituta egon zala Mundu au, eta ondo ikasi ebalako, gaur ametsgarri gara lenagoko JAINKOA eta LEGE ZAARRAKAZ.

Gizarte arteko erkidetasunean, bikaintasunezko mailara eldu ziralako'? Ez dakigu ori ziurtasunez, baiña asi gara jakiten Europako Mendebal guztia Euskalduna zala (KROMANON) demokrazia aundi baten, eta nai leiñu askotan bananduta egon arren Euskal izana, izkuntza, ekanduak eta sinismen bakarra euki ehelako, berez, eta berezitasunean batzangotuta agertu ziran, denbora auek baiño askoz aberatzaigoak izan bear ziranak, gaurko egunetan guk orduko LEGE ZAARRAREN ekanduagaitik ainbesteko gogotasuna eukiteko.

Ortik agertzen da Mundu onen gizartearentzat denhora guztiak bardiñak dirala, daukazan LEGE'ak bardiñak diralako beti. Guk bizitzako epe labur baten, LEGE orren agindu garbiakaz ekanduta jokatu daigun ordezkaritzako ekintza baten, nai-ta gure gogoetan oldoztu arrigarriko gauzak egiten gagozela, leenengoena guztiz aitzuta eukinda "BAKOTZARI BERE".

Zertarako?

BERAK bakarrik daki.

ERROMATARRAK:

Arro agertu ziran oneik sasi-jainkotasunaren ameskerian, gudaren antolamendu aundiagaz. Europa'ko gesal-tze ostean erri aundiak izan zirenak eta sortu ziran barriak, danak menparatzeko naian.

Ararte Europa'ren gizartea, ulermen aundiaz danon babeserako eroan eben berezitasunezko antolamendua elburu lez batzangotzeko, guztiz apurtu eban, ikaragarriko naazpiltasuna eginda errien izkuntzetan eta giza'ren ekanduzko gogapenetan.

Ortik aur'era Europa onetan gaur arte, asko izan dira sasi-jainkotasunaren ametsak euki dabezanak, eta eten bako kate baten antzera, baktzaren porrot'en ostean, besteak era ezbardin baten artu dabela agindu-gurearen amets gaizto ori, euren zerbitzurako.

Noraiño izango ete da ameskeri orren indarra ta itsutasuna, gaurko egunean Ludi onetan dakigunagaz, Mundu'ko irugarren borroka nagusian sartuta egoteko, berezitasuna mendekatzeko naian. Gaiñera, gaur, Europa'tik Ameriketara joan ziranak babestuta, Mundu onen sasi-jainko barriak deitzen diranak, ango berezien artean ikaragarriko triskantzak eginda ta gero.

Baiña berezitasuna BERE eta BETIKOA dalako, ezin da beren aurka egin, ikaragarriko muturrekoa artu barik bealdera jauzita. Eta alan gertatu da baktzaren ameskeri usteltasunean; gizartean ainbeste oiñaze eta nekaldi aundiak danetan sortuz. Eta Amerikar oneik be, lortu eben ekanduzko bizkarrean egotea, irurogeiko amarkadatik aldaz bera asi zirenak, gaur abiadura ori aundiagoa artzen dabizela.

GODOAK:

Oneik be, erromataren erdua artuta, agindu gura eben Europa guztian, bananduta egon ziran Ostrgodo'en eta Bisigodo'en bitartez, baiña areik baiño arazo geiago aurkitu eben, erriak, Euskaldunen antzera, gudako antolamenduaz asi ziralako apaintzen euren babeserako. Konwan artu barik, Mauritarren eraso gelditzeko ez zirala izan gai.

Baiña Erromatarren eta Godoen arteko ekintzatik, gertakizun bi artu bear doguz, oso garrantzi aundikoak direnak eta asken baten gogapen bat dana, aurrera begira menperatzaileari indarra emoteko. Leenengoena: Erromatarren kaisar-jaun Konstantinok, Kristautasunaren talde bateri emon eutson KATOLIKO'tasunaren itzekin indarra, Arriano'ak bastartuta, Jainkoa'ren ordezko eta egian bakarrak zirala esanez, 325'an, beren aginpidean batu eban Nizea'ko Eleiz batzar nagusian.

Godo'ak he, eredu ori artuta hurutakizun ona izan balitz bezala alan egin eben, Leobigildo'k beren seme Rekaredo'ri aginduta. Onek 589'an Eleiz batzar nagusia

ERRIGINTZA

batu eban bere agindupean (gaurko egunetan Aznar'ek egin dauana gotzaiña'kin), eta ortik aurrera datoz zoritxarreko Toledo'ko Eleiz-Batzar nagusiak (concilios de Toledo), demokrazia'ri ainbeste kalte egiten dautsoenak.

Gauza bi oneik kontuan euki bear doguz geroko irakurgaitan, jakiteko nundik agertzen jakozan arazorik aundienak gaurko eta betikoa izan bear zan DEMOKRAZIA'ri.

ELEIZA ETA ERREGE DENBORA:

Katolikotasunaren Eleiza, Konstantino'k Eleiza'ren batzar nagusia batu eban 325'etik aurrera dator, eta ia beragaz batera inkisizioa eraiki eben, eurengandik kanpo ibiltzen zana zigortzeko, euren eritziz JAINKOA'ren ordezekoak eta beragaz egian bakarrak ziralako.

Amaika'garren gizaldian (1.095-1.099) eta II Urbano Aita Santu'ren buruz leenengo kruzada antolatu eben, gudaren bitartez Mauritarren eskuetatik lur-santuak esku-ratzeko.

Tresna bi oneikaz, Eleiza eta jaurkintza'ko jauntxuek, ikaragarritzko triskantzak eta lapurketak egin ebezan euren jauntxutasunagaz guda-indarraren bitartez Europa zabalean. Eta olan iraun eben Eleiza, 1.820'an Inkisizioa indar gabetu-arte.

Denbora guzti oneik, danak izan dira berezitasunaren aurkakoak, Eleizak latineguz beste izkuntz guztiak desagertu edo menpean eukitea gura izan daualako, eta erregeak batera gizarte guztia euren kontrolpean euki, daukiezan ameskeriak iraun dagie.

ERREGEAK:

Jauntxo oneik, leiñu edo erriak eraikita izendatu ebezan danon babeserako, beti!, askatasun guztia eukinda jauntxo bategaz edo besteagaz joateko iñungo arazo barik.

Antolamendu orretan, jauntxoak ez eben euki iñungo eskubiderik, babeseko alkartean ziran leiñu edo errien legeak eraikiteko, bera ez zalako iñor leiñu eta errien antolamentuetan sartzeko. Baten-bat burrukalarri agertzen bazan, danon artean emondako gudozotearen idarragaz, a, bakeratzeko baiño.

Gure Napar erregeak be, katolikotasunezko sare ortan asieratik jausita egon ziran latinean bitartetik, eta Europa'ko erregetza guztian ezkontz-aidetuta egon ziran lez, esan leike gure malda beerakoa bertan asi zala.

Begitu bestela gure III Santxo Aundiak egin ebana Euskalerrri osoa here semeen artean lau zatitan bananduta, Euskal-legearen aurkakoa zana. Eta ainbat adibideakaz argiratu leikena.

Gaur egunean erregeen irudia desagertuta dago, baiña "ESTADOS DE DERECHO" en izenpean batera agertzen dira. gudaren espatak berezitasunaren buru gainetan ezarrita Eliza'ren bedeinkapenagaz (or bestela TOLEDO'ko KONTZILIOAK). Espainia'ko Gotzaiñak Euskalerrria, Kataluña eta Galizia'ko Nortasun bereziaren aurka, Munduko gizatasunezko erri artetan, izugarritzko genozidioak egiten. Erromatarren ametsa gaur be bizi-bizi daualako, orduan artu ziran erabagiarekin.

EDESTIA'REN ONDORENA:

Edestian begituta ikusten dogu, eleizak eta erregetzak beti danik asmo onak euki dabezala, jaiotzatik danak eroaten dogulako JAINKOA'ren berezitasunezko legeak askatasunerako oiñarrituta, baiña iraspeneko izatean sekula ez dabela indarra euki sasi-jabetasunak daukan erakartze zirikitutasunengandik alde-egiteko. Beti euki dabezelako batzutariko legeak oiñarrituta Sasi-jaunkeritan bizitzeko, eta ez diralako izan gauza edo gai lege orreik aldatzeko, batzuen naikeriagaitik, edestiko gauza guztiak indarkeriaren eta zigorraren bidez egin diralako, ainbat bildur, negar, goibelaldi, neke, lotsa, izu-ikara, sasi-jainkoaren zigorragez eta espataren keiñuaz.

GAURKO DEMOKRAZIA:

Gaur, Mundu onen gizartean, izugarritzko leer-gaillu baten gainean gagoz ezarrita, laterri-eskubideen oparotasunean bizi diranak, euren eskuetan indar guztia eukinda edestian zear lez, ez diralako gai, orren zirikitutasunen bidetik gogoak aldatzeko, danon ardurak eurak eroanda, beste gizarte guztia arima-gabeko utsaltasunean itzita eta txirotasunera bideratuta, aide batetik.

Bestetik, arima bizkor eta ausartak diranak, gudaren bidez gura dabelako ordezkartzaren oreka lortu. Eta ori eziñezkoa da, besteak indar guztia daukielako, eta betiko lez, ez dautsielako ardura aundirik emoten gizarteari beste muturreko aundiaz jota, eurak gure daben lekuan eukiteko. Orain arte be, daukien indarragaz eta arau-bidez eurak nai daben xautzailetasunezko bidean kokatzen gaituelako.

Baiña gaur egunean ez dira lenagoko denborak, gaurko argibidearen billakuntzak oso azkarragoak diralako eta jakintzaren aldetik ulermen aundikoak. Indar oneik dira gaur erabili bear doguzanak, benetako indarra or dagolako. Tresneriak ez dauka indarrik norberak erabili ezik, eta lotsa danok oiñarrituta daukagu, orregaitik danok eldu gara BEREN berezitasunak muga egiten dauskun lekurarte, geienak asi garalako konturatzen Mundu onetara arduradunak izateko jaijo garala.

Or ! dago indarra, eurak baiño askoz geiago garalako, eta gure ardurak betetan badoguz Munduko gizartea orduan izango da gai gaurko gogapena 180°tan itzultzeko, Ludi onen oreka lortu daigun.

Orko bidetik joateko, Euskalerrriak iñork baiño gogoe-tako tresneri ohea dauka askatasunari bultz egiteko, Euskal genetika askatasunean oiñarrituta dagoelako, eta ziur nago Euskalerrriak lortuko dabezala EUSKADI'ren ametsak benetan eta lotsagizunezko ardura aundiagaz jokatzen ba-dogu.

"DEMOKRAZIA" "BAKOTZARI BEREN ARDURA EMOTEA DA ZALANTZARIK GAB", eta Mundua, arlo orretan, gaur ankaz-gora dago.

ATUTXA'tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003'an ILBELTZA'ren 5'ean

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk⁺